PASAIAKO UDALA
www.pasaia.eus

PROGRAMA: Atzerritartasunaren arloko aholkularitza espezializatuko eta Pasaiako Udaleko Gizarte Zerbitzuei laguntza teknikoa emateko zerbitzua

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

PROGRAMA: Servicio de asesoramiento especializado en materia de extranjería y apoyo técnico a los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Pasaia

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 910
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

GIZARTE EKINTZA
gizartekintza@pasaia.net

PROGRAMAREN TESTUINGURUA ETA JUSTIFIKAZIOA

Migrazio-prozesuak, bereziki arrazoi sozioekonomikoek edo politikoek eragindakoak, oso konplexuak dira. Prozesu horiek esperientzia zailak sortzen dizkiete protagonistei. Migrazioak helmuga berri batera mugitzea dakar (eta gehienetan ez da izaten behin betiko helmuga, gainera); baina desplazamendu fisikoaz gain, bestelako erronkak ere badakartza, alegia: oztopo kulturalei aurre egin behar izatea, tokiko hizkuntza ez ezagutzea, laguntza-sarerik ez izatea, muga ekonomikoak eta, askotan, legezko oztopo gaindiezinak. Testuinguru horretan, migratzaileek beren eguneroko bizitza berreraiki eta etorkizuna planifikatu behar dute.

Azken urteotan, Pasaiako udalerrian gero eta atzerritar gehiago bizi da, eta gero eta ikasle atzerritar gehiago dago udalerriko Lanbide Heziketako zentroetan. Errealitate horrek akonpainamendu-, orientazio- eta laguntza-behar berriak sortzen ditu, eskubide, baliabide eta zerbitzu publikoetarako sarbide eraginkorra bermatzeko, berdintasun-baldintzetan eta giza eskubideen esparruan.

Atzerritarrek zailtasunak izan ditzakete honako hauen ondorioz:

- Atzerritartasunaren arloan indarrean dagoen arau-esparrua ez ezagutzea.
- Erakundeekiko harremana zailtzen duten hizkuntza- eta kultura-oztopoak.
- Administrazio-erregularizazioari eta eskubideak baliatzeari lotutako administrazio-prozeduren konplexutasuna.
- Gizarte-, osasun-, hezkuntza- edo lan-arloko baliabide eta zerbitzu publikoak eskuratzeko zailtasunak.

CONTEXTO Y JUSTIFICACIÓN DEL PROGRAMA

Los procesos migratorios, en especial aquellos motivados por razones socio-económicas o políticas, presentan una complejidad significativa. Estos procesos generan experiencias difíciles de manejar para quienes los protagonizan. La migración implica no solo el desplazamiento físico hacia un nuevo destino, que rara vez es definitivo, sino también enfrentar barreras culturales, desconocimiento del idioma local, falta de redes de apoyo, limitaciones económicas y, a menudo, obstáculos legales insuperables. En este contexto, las personas migrantes deben reconstruir su vida cotidiana y planificar su futuro.

En los últimos años, el municipio de Pasaia ha experimentado un incremento progresivo de población extranjera residente, así como de alumnado de origen extranjero en los centros de Formación Profesional del municipio. Esta realidad genera nuevas necesidades de acompañamiento, orientación y apoyo para garantizar el acceso efectivo a derechos, recursos y servicios públicos en condiciones de igualdad y en el marco de los derechos humanos.

Las personas extranjeras pueden encontrar dificultades derivadas de:

- Desconocimiento del marco normativo vigente en materia de extranjería.
- Barreras lingüísticas y culturales que dificultan la relación con las instituciones.
- Complejidad en los procedimientos administrativos vinculados a la regularización administrativa y al ejercicio de derechos.
- Dificultades de acceso a recursos y servicios públicos de carácter social, sanitario, educativo o laboral.

- Gizarte-kalteberatasuneko eta bazterketa-arriskuko egoerak.

Testuinguru horretan, Pasaiako Udalak, Gizarte Ekintza Sailaren bitartez, beharrezkotzat jotzen du atzerritartasunaren arloko administrazio-aholkularitzako zerbitzu espezializatu bat bultzatzea, Gizarte Zerbitzuetako taldeari laguntza teknikoa emateko eta honako hauek egiten laguntzeko:

- Gizarteratze-prozesuak erraztea, administrazio-erregularizazioko prozesuetan lagunduz.
- Saihestu daitezkeen bazterkeria- edo bazterketa-arriskuko egoerak prebenitzea, administrazio-aholkularitza ona eta gizarte-orientazio goiztiarra emanez.
- Eskubideak benetan erabiltzen direla bermatzea eta administrazio-prozedurak ez ezagutzearen ondorioz aukerak galtzea saihestea.
- Udalerriko gizarte-kohesioa indartzea, aurreiritziei eta desinformazioari aurre egiten lagunduz eta eskubideetan eta tratu-berdintasunean oinarritutako begirada sustatuz.

Zerbitzu hau Pasaiako Udaleko Gizarte Ekintza Sailak udalaren esku-hartze sozialari laguntzeko garatutako jardueren esparruan kokatzen da, eta izaera hau du: prebentzioa, orientazioa eta atzerritartasunaren arloko laguntza administratibo espezializatua; kulturarteko elkarbizitza sustatzeko helburuarekin. Era berean, 185/2015 Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan jasotako prestazioekin lotuta dago, bereziki lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuen berezko gizarte-laguntzako 1.3 zerbitzuarekin.

Aurrekoa kontuan hartuta, Gizarte Ekintza Saileko Migrazio eta Aniztasun Arloak ezinbestekotzat jotzen du laguntza-tresna espezializatuak ezartzea, egoera horiei erantzun egokia eman ahal izateko. Horiek horrela, hau da programa hau abian jartzeko arrazoi nagusia: Pasaiako Udaleko Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileei eta Pasaiako

- Situaciones de vulnerabilidad social y riesgo de exclusión.

En este contexto, el Ayuntamiento de Pasaia, a través del Departamento de Acción Social, considera necesario impulsar un servicio especializado de asesoramiento administrativo en materia de extranjería que sirva de apoyo técnico al equipo de Servicios Sociales y que contribuya a:

- Favorecer los procesos de inclusión social mediante el acompañamiento en los procesos de regularización administrativa.
- Prevenir situaciones de riesgo de exclusión o de exclusión evitables con un buen asesoramiento administrativo y orientación social temprana.
- Garantizar el ejercicio efectivo de derechos y evitar la pérdida de oportunidades derivada del desconocimiento de los procedimientos administrativos.
- Reforzar la cohesión social en el municipio, contribuyendo a combatir prejuicios y desinformación, y promoviendo una mirada basada en los derechos y la igualdad de trato.

Este servicio se enmarca en el ámbito de las actuaciones de apoyo a la intervención social municipal desarrolladas por el Departamento de Acción Social del Ayuntamiento de Pasaia y tiene carácter preventivo, de orientación y acompañamiento administrativo especializado en materia de extranjería para favorecer la convivencia intercultural. Asimismo, se vincula con las prestaciones contempladas en la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, aprobada mediante el Decreto 185/2015, en particular con el servicio 1.3 de acompañamiento social, propio de los servicios sociales de atención primaria.

Teniendo en cuenta lo anterior, el Área de Migración y Diversidad del Departamento de Acción Social considera imprescindible implementar herramientas de apoyo especializadas que permitan dar respuesta adecuada a estas situaciones. Esta es la razón principal para la puesta en marcha de este programa: ofrecer a las personas usuarias de

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 910
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

GIZARTE EKINTZA
gizartekintza@pasaia.net

Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuko ikasleei atzerritartasunaren arloan espezializatutako gizarte-aholkularitzako eta -laguntzako zerbitzu bat eskaintzea. Zerbitzuaren helburua izango da migrazio-prozesuetatik eratorritako ondorio kaltegarriak arintzea, migratzaileen administrazio-egoerarekin lotutako administrazio-prozedurak ulertzen eta izapidetzen laguntzea, eta eskubideak eta baliabideak berdintasun-baldintzetan eskuratzen laguntzea. Era berean, orientazio juridiko eta administratibo egokia eman nahi da, hartzaileek segurtasun handiagoz jardun ahal izan dezaten gizarteratze- eta administrazio-prozesuan.

los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Pasaia y al alumnado del Instituto Municipal de Formación Profesional Básica de Pasaia un servicio de asesoramiento y acompañamiento social especializado en materia de extranjería. El servicio tendrá como finalidad mitigar los efectos adversos derivados de los procesos migratorios, facilitar la comprensión y tramitación de los procedimientos administrativos vinculados a la situación administrativa de las personas migrantes y favorecer su acceso efectivo a derechos y recursos en condiciones de igualdad. Asimismo, se pretende proporcionar una orientación jurídica y administrativa adecuada que permita a las personas destinatarias desenvolverse con mayor seguridad en su proceso de inclusión social y administrativa.

Era berean, zerbitzuaren eginkizuna udaleko Gizarte Zerbitzuetako talde profesionalari laguntza teknikoa ematea izango da, atzerritartasunaren arloko aholkularitza espezializatua, prestakuntza eta orientazioa emanez, teknikariek arlo horrekin lotutako esku-hartze sozialeko prozesuak agintzeko eta laguntzeko dituzten gaitasunak indartzeko. Horrek guztiak udalaren esku-hartze sozialaren kalitatea hobetzen lagunduko du, erantzun eraginkorragoak, koordinatuagoak eta indarrean dagoen araudira egokituagoak bermatuz.

De igual modo, el servicio tendrá una función de apoyo técnico al equipo profesional de los Servicios Sociales municipales, proporcionando asesoramiento especializado, formación y orientación en materia de extranjería, con el fin de reforzar las capacidades del personal técnico en la prescripción y acompañamiento de los procesos de intervención social relacionados con esta materia. Todo ello contribuirá a mejorar la calidad de la intervención social municipal, garantizando respuestas más eficaces, coordinadas y ajustadas a la normativa vigente.

Agiri honek zerbitzua kontratatzeko baldintza teknikoak zehazten ditu.

El presente Pliego define las condiciones técnicas para la contratación del servicio.

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da atzerritartasunaren arloan espezializatutako administrazio-aholkularitzako eta gizarte-laguntzako zerbitzua ematea Pasaiako Udaleko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileei eta Pasaiako Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuko ikasleei.

1. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del presente contrato es la prestación de un servicio de asesoramiento administrativo y acompañamiento social especializado en materia de extranjería dirigido a las personas usuarias de los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Pasaia y al alumnado del Instituto Municipal de Formación Profesional Básica de Pasaia.

Zerbitzuaren helburua izango da atzerritartasunari buruzko araudiari eta migrazio-prozesuei lotutako administrazio-prozedurei buruzko informazioa, orientazioa eta laguntza ematea, eskubide, baliabide eta zerbitzu publikoetarako benetako sarbidea erraztuz, eta, era berean, irregulartasun administratiboaren edo aplikatzekoa den arau-esparrua ez ezagutzearen ondoriozko kalteberatasun sozialeko egoerak prebenitzen lagunduz. Zerbitzua prebentziozkoa izango da, eta udalaren esku-hartze sozialari laguntzeko izango da.
Era berean, kontratuaren barruan sartzen da udaleko Gizarte Zerbitzuetako talde profesionalari laguntza teknikoa ematea, atzerritartasunaren arloko aholkularitza espezializatuaren, orientazio teknikoaren eta prestakuntza-ekintzen bidez; langileek arlo horrekin lotutako esku-hartze sozialeko prozesuak agintzeko eta laguntzeko dituzten gaitasunak indartzeko.

Horrez gain, zerbitzuak udalaren gizarte-zerbitzuetako langileei aholkularitza tekniko espezializatua emango die atzerritartasunari buruzko araudiari lotutako arazoak sortzen diren kasuetan esku hartzeko, inguruabar horiek behar bezala kontuan har daitezen arreta pertsonaleko eta familiarreko planak prestatzean eta haien jarraipena egitean.

Ildo horretan, zerbitzuak honako jarduketa hauek hartuko ditu barne, besteak beste:

- Atzerritartasunaren arloko administrazio-aholkularitza espezializatua.
- Gizarte-, osasun-, hezkuntza- eta lan-baliabideak eskuratzeko orientazioa.
- Migratzaileen administrazio-egoerarekin lotutako administrazio-prozedurak izapidetzen laguntzea eta haien jarraipena egitea.
- Komunitateari zuzendutako sentsibilizazio-tailerrak egitea.
- Gizarte Ekintzako profesionalentzako prestakuntza-ekintzak egitea.
- Programaren ebaluazioa eta urteko memoria egitea.

El servicio tendrá como finalidad proporcionar información, orientación y apoyo en relación con los procedimientos administrativos vinculados a la normativa de extranjería y a los procesos migratorios, facilitando el acceso efectivo a derechos, recursos y servicios públicos, así como contribuyendo a prevenir situaciones de vulnerabilidad social derivadas de la irregularidad administrativa o del desconocimiento del marco normativo aplicable. El servicio tendrá carácter preventivo y de apoyo a la intervención social municipal.

Asimismo, el contrato incluye la prestación de apoyo técnico al equipo profesional de los Servicios Sociales municipales mediante asesoramiento especializado, orientación técnica y acciones formativas en materia de extranjería, con el objetivo de reforzar las capacidades del personal en la prescripción y acompañamiento de los procesos de intervención social relacionados con esta materia.
Además, el servicio incluirá la prestación de asesoramiento técnico especializado al personal de los Servicios Sociales municipales en relación con la intervención en casos que presenten cuestiones vinculadas a la normativa de extranjería, con el fin de que dichas circunstancias puedan ser adecuadamente consideradas en la elaboración y seguimiento de los planes de atención personal y familiar.
En este sentido, el servicio incluirá, entre otras, las siguientes actuaciones:

- Asesoramiento administrativo especializado en materia de extranjería.
- Orientación en el acceso a recursos sociales, sanitarios, educativos y laborales.
- Acompañamiento y seguimiento en la tramitación de procedimientos administrativos relacionados con la situación administrativa de las personas migrantes.
- Realización de talleres de sensibilización dirigidos a la comunidad.
- Realización de acciones formativas para profesionales de Acción Social.
- Elaboración de una evaluación y memoria anual del programa.

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 910
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

GIZARTE EKINTZA
gizartekintza@pasaia.net

Zerbitzuaren esparruan garatutako jarduerak udaleko gizarte-zerbitzuek garatutako esku-hartze sozialeko prozesuekin koordinatu beharko dira uneoro, laguntza tekniko espezializatuko baliabide gisa jardunez eta udal-langileen berezko eginkizunak ordeztu gabe.

Deskribatutako jarduerek ez dituzte eragotziko zerbitzua behar bezala garatzeko eta haren helburuak betetzeko beharrezkoak izan daitezkeen beste esku-hartze batzuk, betiere indarrean dagoen araudiaren eta Gizarte Ekintza Sailaren jarraibideen esparruan.

Zerbitzua Pasaiako Udaleko Gizarte Ekintza Sailaren zuzendaritza teknikoaren pean gauzatuko da, Migrazio eta Aniztasun Arloaren bitartez. Arlo horrek zerbitzua behar bezala ezartzeko behar diren jarraibideak ezarri ahal izango ditu.

Las actuaciones desarrolladas en el marco del servicio deberán coordinarse en todo momento con los procesos de intervención social desarrollados por los Servicios Sociales municipales, actuando como recurso de apoyo técnico especializado y sin sustituir las funciones propias del personal municipal.

Las actuaciones descritas se entenderán sin perjuicio de otras intervenciones que puedan resultar necesarias para el adecuado desarrollo del servicio y el cumplimiento de sus objetivos, siempre en el marco de la normativa vigente y de las directrices del Departamento de Acción Social.

La ejecución del servicio se desarrollará bajo la dirección técnica del Departamento de Acción Social del Ayuntamiento de Pasaia, a través del Área de Migración y Diversidad, que podrá establecer las directrices necesarias para su correcta implementación.

2. IRAUPENA

Kontratuaren **hasierako iraupena bi urtekoa** izango da. Kontratua luzatu ahal izango da. Kontratazio-organoak berariaz adostu beharko du luzapena, eta lehen luzapena ezarri ahal izango da, **gehienez ere urtebeterako**, eta bigarren luzapena, **gehienez ere urtebeterako**. Nolanahi ere, kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, **ezin izango da lau urtetik gorakoa izan.** Zerbitzua 2026ko irailean ematen hastea aurreikusten da.

2. DURACIÓN

La **duración inicial** del contrato será de **dos años**. El contrato podrá ser objeto de **prórroga**, que deberá acordarse de forma expresa por el órgano de contratación, pudiendo establecerse una primera prórroga por un periodo de **hasta un máximo de un año** y una segunda prórroga por un periodo de **hasta un máximo de un año**. En todo caso, la duración total del contrato, incluidas las prórrogas, **no podrá exceder de cuatro años.** Se prevé que el inicio de la prestación del servicio tenga lugar en septiembre de 2026.

3. PROGRAMAREN HELBURUAK

- Helburu orokorra

- Atzerritartasunaren arloko administrazio-aholkularitzako eta gizarte-laguntzako zerbitzu espezializatua eskaintzea Pasaiako Udaleko Gizarte Zerbitzuen

3. OBJETIVOS DEL PROGRAMA

- Objetivo General

- Ofrecer un servicio de asesoramiento administrativo y acompañamiento social especializado en materia de extranjería dirigido a las personas usuarias de los Servicios Sociales del Ayuntamiento de

erabiltzaileei eta Pasaiako Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuko ikasleei; eskubide, baliabide eta zerbitzu publikoetarako sarbide eraginkorra izan dezaten, gizarteratze-prozesuak errazteko eta migrazio-prozesuen ondoriozko kalteberatasuneko edo gizarte-bazterketako egoerak prebenitzeko.

- Helburu zehatzak

- Atzerritartasunari buruzko araudiari eta migratzaileen eskubide eta betebeharrei buruzko informazio argia, eskuragarria eta eguneratua ematea.

- Orientazioa eta laguntza ematea atzerritarren administrazio-egoerarekin lotutako administrazio-prozedurak izapidetzean (AIZ, erroldatzea, bizileku- eta lan-baimenak, errotzea, nazionalitatea, besteak beste).

- Udaleko Gizarte Zerbitzuetako profesionalei laguntza teknikoa eta aholkularitza espezializatua ematea, esku-hartze sozialeko prozesuetan atzerritartasunari buruzko araudia aplikatzeari dagokionez, arreta ematen zaien pertsonen banakako eta familiako esku-hartze planetan alderdi horiek egoki sartzea erraztuz.

- Udalerriko gizarte-, osasun-, hezkuntza- eta lan-baliabideetarako sarbidea erraztea, zerbitzu publikoetarako sarbidean aukera-berdintasuna sustatuz.
- Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileen autonomia pertsonala bultzatzea, izapideak eta baliabideak kudeatzeko gaitasuna indartuko duten orientazio- eta laguntza-prozesuen bidez.

- Udalerrian gizarte-kohesioa eta kulturen arteko bizikidetza sustatzea, sentsibilizazio-ekintzen eta aurreiritziak eta desinformazioa prebenitzeko ekintzen bidez.
- Lurraldeko beste baliabide eta zerbitzu batzuekiko koordinazioa ahalbidetzea (administrazio publikoak, gizarte-erakundeak, ikastetxeak, osasun-zerbitzuak eta beste eragile

Pasaia y al alumnado del Instituto Municipal de Formación Profesional Básica de Pasaia, con el fin de facilitar su acceso efectivo a derechos, recursos y servicios públicos, favorecer los procesos de inclusión social y prevenir situaciones de vulnerabilidad o exclusión social derivadas de los procesos migratorios.

- Objetivos Específicos

- Proporcionar información clara, accesible y actualizada sobre la normativa de extranjería y sobre los derechos y deberes de las personas migrantes.
- Orientar y acompañar en la tramitación de procedimientos administrativos relacionados con la situación administrativa de las personas extranjeras (NIE, empadronamiento, autorizaciones de residencia y trabajo, arraigo, nacionalidad, entre otros).
- Proporcionar apoyo técnico y asesoramiento especializado al personal profesional de los Servicios Sociales municipales en relación con la aplicación de la normativa de extranjería en los procesos de intervención social, facilitando la adecuada incorporación de estos aspectos en los planes de intervención individual y familiar de las personas atendidas.
- Facilitar el acceso a recursos sociales, sanitarios, educativos y laborales del municipio, promoviendo la igualdad de oportunidades en el acceso a los servicios públicos.
- Favorecer la autonomía personal de las personas usuarias de los Servicios Sociales mediante procesos de orientación y acompañamiento que refuercen su capacidad para gestionar tramites y recursos.
- Promover la cohesión social y la convivencia intercultural en el municipio mediante acciones de sensibilización y prevención de prejuicios y desinformación.
- Favorecer la coordinación con otros recursos y servicios del territorio (administraciones públicas, entidades sociales, centros educativos, servicios sanitarios y otros agentes comunitarios),

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 910
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

GIZARTE EKINTZA
gizartekintza@pasaia.net

komunitario batzuk), migratzaileen beharrekiko esku-hartze integralagoa eta koherenteagoa bermatzeko asmoz.

- Udalerriko migrazio-prozesuekin lotuta sortzen ari diren premiak detektatzea eta aztertzea, eta Gizarte Ekintza Sailari informazioa eta hobekuntza-proposamenak ematea, udal-politikak eta -programak udalerriko gizarte-errealitatera egokitzen laguntzeko.

con el fin de garantizar una intervención más integral y coherente con las necesidades de las personas migrantes.

- Detectar y analizar necesidades emergentes relacionadas con los procesos migratorios en el municipio, aportando información y propuestas de mejora al Departamento de Acción Social que contribuyan a adaptar las políticas y programas municipales a la realidad social del municipio.

4. HARTZAILEAK

Programaren hartzaileak honako hauek izango dira:

- Pasaiako Udaleko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileak, atzerritartasunaren arloko aholkularitza edo laguntza espezializatua behar dutenak esku-hartze sozialeko prozesuaren esparruan.

- Pasaiako Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuko ikasleak, beren administrazio-egoeraren edo migrazio-prozesuaren arabera atzerritartasun-arloko orientazioa edo laguntza behar dutenak.

- Pasaiako Udaleko Gizarte Ekintza Saileko profesionalak. Atzerritartasunaren arloko laguntza teknikoa, aholkularitza espezializatua eta prestakuntza-ekintzak jaso ahal izango dituzte, esku-hartze soziala eta migratzaileentzako arreta hobetzeko.

Oinarrizko gizarte-langileen preskripzio teknikoaren bidez eskuratuko da zerbitzua, hartzaileekin garatzen diren esku-hartze sozialeko prozesuen esparruan. Horretarako, ezinbestekoa izango da zerbitzura sartzeko dagokion deribazio-fitxa betetzea, esku-hartze egokia, eraginkorra eta koordinatua bermatzeko.

4. DESTINATARIOS/AS

Serán destinatarias del programa:

- Personas usuarias de los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Pasaia que requieran asesoramiento o acompañamiento especializado en materia de extranjería en el marco de su proceso de intervención social.

- Alumnado del Instituto Municipal de Formación Profesional Básica de Pasaia que, en función de su situación administrativa o de su proceso migratorio, precise orientación o apoyo en materia de extranjería.

- Personal profesional del Departamento de Acción Social del Ayuntamiento de Pasaia, que podrá recibir apoyo técnico, asesoramiento especializado y acciones formativas en materia de extranjería con el fin de mejorar la intervención social y la atención a personas migrantes.

El acceso al servicio se realizará mediante prescripción técnica de las trabajadoras y trabajadores sociales de base, en el marco de los procesos de intervención social que se desarrollen con las personas destinatarias. A tal efecto, será requisito indispensable la cumplimentación de la correspondiente ficha de derivación para acceder al servicio, con el fin de

Aurrekoa gorabehera, eta balorazioa egin ondoren, Gizarte Ekintza Saileko Migrazio eta Aniztasun Arloak enpresa esleipendunarekin adostu ahal izango du programaren xedearekin lotutako jarduketa espezifikoak antolatzea, baldin eta bi alderdiek uste badute jarduketa horiek egokiak direla beren helburuak betetzeko.

garantizar una intervención adecuada, eficaz y coordinada.
No obstante lo anterior, y previa valoración, el Área de Migración y Diversidad del Departamento de Acción Social podrá acordar con la empresa adjudicataria la organización de actuaciones específicas relacionadas con el objeto del programa, siempre que ambas partes consideren que dichas actuaciones resultan adecuadas para el cumplimiento de sus objetivos.

5. ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

5.1.- Edukia

Zerbitzu hori gauzatzean, hiru jarduera-eremu bereizten dira:

- **Administrazio- eta antolaketa-kudeaketa:** programa behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren barne-zereginak barne hartzen ditu, hala nola plangintza egitea, Gizarte Ekintza Sailarekin koordinatzea, zerbitzua zabaltzea, izen-emateak eta bideratzeak kudeatzea, esku-hartzeen jarraipena egitea, informazioa biltzea, ebaluatzea eta emaitzak itzultzea.

- **Banakako arreta, administrazio-prozesuetan laguntza eta esku-hartze sozialerako laguntza teknikoa:** atzerritartasunari buruzko orientazioko eta aholkularitza espezializatuko saioen bidez, programaren hartzaileei zuzenduak, honako hauek barne: baliabideei buruzko informazioa, izapidetze administratiboan laguntzea, beste zerbitzu batzuekin koordinatzea eta, hala badagokio, beste baliabide espezializatu batzuetara bideratzea. Era berean, zerbitzuak laguntza tekniko espezializatua emango die udaleko gizarte-zerbitzuetako profesionalei, esku-hartze sozialak atzerritartasunari buruzko araudiarekin lotutako alderdiak baloratzea edo aplikatzea eskatzen duen kasuetan, eta, horretarako, orientazio teknikoa, administrazio-egoeren azterketa eta elementu horiek esku-hartze sozialeko prozesuetan sartzea errazten duten irizpideak emango dizkie.

- **Prestakuntza eta sentsibilizazio-**

5. CARACTERÍSTICAS DEL SERVICIO

5.1.- Contenido

En la ejecución de este servicio se diferencian tres ámbitos de actuación:

- **Gestión administrativa y organizativa:** incluye las tareas internas necesarias para la correcta ejecución del programa, tales como la planificación, la coordinación con el Departamento de Acción Social, la difusión del servicio, la gestión de inscripciones y derivaciones, el seguimiento de las intervenciones, la recogida de información, la evaluación y la devolución de resultados.

- **Atención individualizada, acompañamiento en procedimientos administrativos y apoyo técnico a la intervención social:** mediante sesiones de orientación y asesoramiento especializado en materia de extranjería dirigidas a las personas destinatarias del programa, incluyendo información sobre recursos, acompañamiento en la tramitación administrativa, coordinación con otros servicios y, en su caso, derivaciones a otros recursos especializados. Asimismo, el servicio prestará apoyo técnico especializado al personal profesional de los Servicios Sociales municipales en aquellos casos en los que la intervención social requiera valorar o aplicar aspectos relacionados con la normativa de extranjería, proporcionando orientación técnica, análisis de situaciones administrativas y criterios que faciliten la incorporación de dichos elementos en los procesos de intervención social.

- **Formaciones y acciones de**

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 910
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

GIZARTE EKINTZA
gizartekintza@pasaia.net

ekintzak: erabiltzaileentzako eta udal-profesionalentzako prestakuntza-saioak eta sentsibilizazio-jarduerak egingo dira, eta, besteak beste, eduki hauek jorratuko dira:

- Migrazio-prozesuak.
- Migratzaileen eskubideak eta betebeharrak.
- Atzerritartasunaren arloko arau-esparrua.
- Gizarte-zerbitzuetatik migratzaileekin esku hartzeko egitura.
- Aurreiritzien, estereotipo arrazisten eta desinformazioaren prebentzioa.

sensibilización: se desarrollarán sesiones formativas y actividades de sensibilización dirigidas tanto a personas usuarias como al personal profesional municipal, abordando, entre otros, los siguientes contenidos:

- Procesos migratorios.
- Derechos y deberes de las personas migrantes.
- Marco normativo en materia de extranjería.
- Estructura de intervención con personas migrantes desde los servicios sociales.
- Prevención de prejuicios, estereotipos racistas y desinformación.

Euskara izango da zerbitzuaren ohiko lan-hizkuntza, nahiz eta beste hizkuntza batzuk ere erabili ahal izango diren erabiltzaileei arreta egokia bermatzeko beharrezkoa denean.

El euskera será la lengua de trabajo ordinaria del servicio, sin perjuicio de que puedan emplearse otros idiomas cuando resulte necesario para garantizar una adecuada atención a las personas usuarias.

Era berean, sentsibilizazio-ekintzak garatzean, euskararen eta parte-hartzaileen jatorrizko hizkuntzen aldeko jarrera positiboa sustatuko da, udalerrian dauden kulturen arteko errespetua eta elkar ezagutzea sustatuz.

Asimismo, en el desarrollo de las acciones de sensibilización se fomentará una actitud positiva hacia el euskera y hacia las lenguas de origen de las personas participantes, promoviendo el respeto y el conocimiento mutuo entre las diferentes culturas presentes en el municipio.

Erakunde lizitatzaileek honako elementu hauek sartu beharko dituzte beren proposamen teknikoan, besteak beste:

Las entidades licitadoras deberán incluir en su propuesta técnica, entre otros aspectos, los siguientes elementos:

a) Programaren koordinazioaz eta atzerritartasunaren arloko aholkularitza eta laguntza espezializatuaz arduratuko diren profesionalak izendatzea.
b) Hala badagokio, prestakuntza-saioak garatzeko behar den material didaktikoa prestatzea.
c) Zerbitzua gauzatzeko proposatutako esku hartzeko metodologia.
d) Zerbitzua kudeatzeko eta antolatzeko

a) Designación del personal profesional responsable de la coordinación del programa y del asesoramiento y acompañamiento especializado en materia de extranjería.
b) Elaboración, en su caso, del material didáctico necesario para el desarrollo de las sesiones formativas.
c) Metodología de intervención propuesta para la ejecución del servicio.
d) Sistema de gestión y organización del

sistema, gutxienez honako hauek jasoko dituena:

- Programa udal-kanalen eta sare sozialen bidez hedatzea.
- Arreta-fitxak kudeatzea eta datuak biltzea.
- Parte-hartzaileen jarraipena.
- Saioetan zehar sortutako informazioa erregistratzea eta sistematizatzea.

servicio, que deberá contemplar al menos:

- Difusión del programa a través de los canales municipales y redes sociales.
- Gestión de las fichas de atención y recogida de datos.
- Seguimiento de las personas participantes.
- Registro y sistematización de la información generada durante el desarrollo de las sesiones.

Halaber, entitate lizitatzaileek ohiko espazioetatik kanpo saio jakin batzuk egiteko aukera sartu ahal izango dute beren eskaintzan, betiere horrek programan aurreikusitako helburuak betetzen laguntzen badu.

Asimismo, las entidades licitadoras podrán incluir en su oferta la posibilidad de desarrollar determinadas sesiones fuera de los espacios habituales, siempre que ello contribuya al cumplimiento de los objetivos previstos en el programa.

Nolanahi ere, urtero sentsibilizazio-saio bat egingo da abenduaren 18aren inguruan, Migratzaileen Nazioarteko Eguna dela eta. Jarduera horrek migratzaileen eskubideen gaiari heldu beharko dio, eta kulturarteko topaketa- eta bizikidetza-espazio bat sustatu beharko du Pasaian bizi diren pertsonen artekoa, haien jatorria edo jaioterria edozein dela ere.

En todo caso, se realizará anualmente una sesión de sensibilización en torno al 18 de diciembre, con motivo del Día Internacional de las Personas Migrantes. Esta actividad deberá abordar la temática de los derechos de las personas migrantes y promover un espacio de encuentro y convivencia intercultural entre las personas residentes en Pasaia, con independencia de su origen o lugar de nacimiento.

Enpresa esleipendunak kontratua gauzatzeko erabiliko dituen langileak enpresa horren menpe egongo dira soil-soilik, eta Pasaiako Udalarekin ez da inolaz ere lan-, funtzionario- edo estatutu-harremanik sortuko.

El personal que la empresa adjudicataria destine a la ejecución del contrato dependerá exclusivamente de la misma, sin que en ningún caso pueda generarse relación laboral, funcionarial o estatutaria alguna con el Ayuntamiento de Pasaia.

Enpresa esleipendunak oso-osorik hartuko ditu bere gain zerbitzuari atxikitako langileei dagozkien betebeharrak, lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan, lan-arriskuen prebentzioaren arloan eta aplikatu beharreko gainerako araudien arloan.

